

Lerroa mintzatzeko denean: Marrazketaren bidez unibertso pertsonalak sortzea



Marrazketaren eta marrarekin esperimentatzearen bidez, esplorazio-prozesu batean murgilduko gara: idazteko, irakurtzeko, pentsatzeko, behatzeko edo marrazteko eta geure lerroa eta ahotsa bilatzeko espazio-denbora bat.

Helburuak

- Mireya Martín Larumberen obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Marrazketarekin esperimentatzea, introspekzio eta adierazpen pertsonalerako tresna gisa.
- Hainbat hizkera harremanetan jartzean sortzen diren adierazpen-, diskurtso- eta estetika-aukeretan sakontzea.
- Sormenezko esperientzia bat bizitzea hurbileko iturrietatik, norberaren interesetatik eta gure ikusizko kulturaren elementuetatik elikatuz.

Aipamenak

Marrazketa-teknika garaikideak: <https://masdearte.com/especiales/ser-papel-o-sermoderno-tecnicas-contemporaneas-de-dibujo/>

"Sobre el dibujo" (Marrazketari buruz). John Berger. [https://www.ucm.es/data/cont/docs/1859-2020-02-03-Berger,%20John%20\(2012\)%20-%20Sobre%20el%20dibujo.pdf](https://www.ucm.es/data/cont/docs/1859-2020-02-03-Berger,%20John%20(2012)%20-%20Sobre%20el%20dibujo.pdf)

"Aprender a dibujar" (Marrazten ikasi). Betty Edwards. https://liceo7paysandu.files.wordpress.com/2013/08/betty_edwards_-_aprender_a_dibujar.pdf

Gentz Del Valle de Lersundi: <https://www.okela.org/eu/artistak/gentz-del-valle-de-lersundi/>; <http://www.m-arteyculturavisual.com/wp-content/uploads/2019/08/00-CATALOGOGENTZ-DEL-VALLE-EXPO-SALAS-MENCHU-GAL-DE-IRUN.pdf>

Susi Jirkuff: <http://susijirkuff.com/installations/>

Artistaren webgunea: <http://mireyamartinlarumbe.com/>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Mireyaren lan batzuk ikusiko ditugu ("Nunca podrás huir de todo lo que has perdido", "Maquillée d'herbe de nuit" <https://vimeo.com/131779556>, etab.)

2. Aukeratutako obrei ekingo diegu hainbat hizkera erabiltzea dakarten dinamiken bidez, esaterako:

- Obrak iradokitzen dizkigun 3 kontzeptu identifikatuko ditugu, eta horiekin olerki bat idatziko.
- Gure gorputzarekin (eskuak, aurpegia...) ikusten duguna imitatuko dugu, mugimendua gehituz, ekintza bat sortuz.
- Obra baten gainean soinu-konposizio bat sortuko dugu, gure ahotsekin eta gorputzaren bidez sortutako beste soinu batzuekin jolastuz.

3. Bizitakoa partekatu, eta praktikaren gai bereizgarriei buruz hausnartuko dugu (teknikak eta materialak, elementu errepikatuak, gaiak eta interesak, eraginak...).

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Banaka, erakartzen gaituen eta identifikatuta sentiarazten gaituen hitz edo kontzeptu bat aukeratuko dugu (abstraktua den zerbait, irekia). Arkatzez, minutu batean, hura definitzen duen lehen marrazki bat egingo dugu.

2. Besteekin partekatu, eta marrazkiari buruz hitz egingo dugu: Kontzeptua ilustratzen duen irudia da? Forma arketipiko eta errepikatuak al dira, ala askea eta ustekabekoa da? Zer beste modutan hel diezaiokegu kontzeptuari? Zein beste elementurekin, formarekin edo irudiekin lotzen dugu hitz hori?

3. 8-10 egunetan, beste marrazki bat egingo dugu egunero, aukeratutako hitza abiapuntutzat hartuta. Hainbat tamainako eta motako paperak, arkatzak, boligrafoak eta abar erabili ahalko ditugu. Norberak etxean edo eskolan egin beharreko lana.

4. Artistaren koaderno bat sortuko dugu, hitzarekin hertsiki lotzen dugun guztia erregistratzeko: irudiak gehituz; abestiak, poemak, oroitzapenak, ametsak eta abar idatziz, etab.

5. Aldi berean, ikasgelan, gure marrazteko moduak hedatzeko honelako jarduerak egingo ditugu:

- Ikaskide bat erretratatu, baina paperari begiratu gabe eta arkatza altxatu gabe.
- Sukaldeko hiru objektu buruz marraztu.
- Usain, zapora edo beste gauza bat adierazi lerroak, orbanak edo testurak baliatuta.
- Orban batetik abiatuta, ezagut daitekeen zerbait marraztu.

(Ikasleen lanak kontuan hartuta planteatzen dituzkegu ariketak, eta hasierako eztabaidara itzuli, proposamen honen izaera esperimental eta bilaketa pertsonala azpimarratzeko).

6. Marrazki bat, batzuk edo marrazki guztiak aukeratuko ditugu, ikaskideei aurkeztu beharreko azken obra gisa, eta izenburua jarriko diegu. Horretarako, koadernoan bildutakoa erabiliko dugu.

Ondorioak eta lerro irekiak

Nola heda dezakegu (maila fisikoan eta kontzeptualean) landutakoa? Nola eraman paperaren marjinetatik haratago?

- Marrazkiak espazio jakin batean instalatzea: leiho batean zintzilikatu, haiekin mahai bat forratu, etab.
- Bikoteka animazio txiki bat egitea, kide bakoitzaren marrazkiak nahastuta.
- Instalazioari karga sinbolikoa ematen dioten elementuak gehitzea: jantziak, objektuak, koaderno pertsonala, etab.
- Marrazkiak proiektatu eta gure gorputzekin eszenografia bat sortzea.

Horretarako, Mireyaren edo marrazketa oinarri duten beste artista batzuen lanak har ditzakegu eredutzat. Ikusi aipamenak.